


**ZUBIETA SANTIAGO ELIZA**  
A MAILA

**HERRIKO PLAZA 1**



**Ez dago jatorrizko proiektuari buruzko daturik Udal Artxiboan**

**Deskribapena**

Eliza hau Zubietako espazio publikoaren barruan dago. Horren ardatza erreboteko pilotalekua da. Erreboteko paretaren atzean kokatuta dago. Elizaren fatxada nagusia harlanduz eraikita dago, espazio publiko horretarako sarbide nagusiaren aurrean. Saihetsetako bi kontrahormek (horietako bat kanpandorre batez errematatuta) ateladaren arku mugatzen dute. Gainerako kontrahormak, kateatuak eta erlaitza harlanduzkoak dira, eta hormak, berriz, harlangaitzezkoak. Pilotalekuaren aldean atxikitako bi gorputz ditu eta beste alboko fatxadan karrerape berri bat dauka. Oinplanoa nabe bakarrekoa da, eta transeptu txiki bat eta alaka moduko abside bat ditu. Pilastrak harlanduzkoak dira, bobedak eta arkuak entokatuta daude. Zurezko korua nabarmentzen da.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berariazko erregimena:  
"Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).